



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko martxoaren 7a

21. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio-ko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Foru Komunitateko ararteko aukeratzea. Hautagaiak aldarrikatzea (8. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena. Zuzenketak aurkezteko epea (9. or.).

—Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko erregelamendua (9. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezen agindu dut. Proiektu hori 2007ko otsailaren 7ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

trazioari buruzkoa, hurrenez hurren– eta horietan ez baitira kontuan hartu ponentziak emaniko aholkuak.

Baina erabat onartezina dena da lege aldaketa bat aprobetxatu nahi izatea atzeraeraginezko sari ekonomiko batzuk emateko izendapen askeko konfiantzako karguei.

Foru administrazioan behar dena da arautze orokor bat, koherenteki egituratua eta goi karguen definizio bat izanen duena egituratze hori jatorri, eta ez adabakirik edo lege proiektu honetan egiten den modukorik, ezin justifikatuzkoa baita erabat.

OSOKO ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, eskatzen du Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion

Zioak: Ez da onargarria Nafarroako Gobernuak 2007ko otsailean lege ekimen bat justifikatzea oinarri hartuz goi karguen bateraezintasunei buruzko ponentziak 2004ko azaroaren 24an emaniko txostena; izan ere, bitartean, hainbat irregulartasun gauzatu dira gai honetan, eta eskandaluak ere izan dira.

Baina are onartezinagoa da 2004ko azaroaren 24ko txosten hori argudio gisa erabiltzea, geroztik 14/2004 eta 15/2004 foru legeak onetsi baitira –Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzkoa eta Nafarroako Foru Komunitatearen adminis-

ARTIKULUEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan, 19/1996 Foru Legeko 2. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra kentzea.

Zioak: Goi kargu kontzeptuaren nahierarako hedatzea da; ez dago behar bezala zehaztuta.

2. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan, 19/1996 Foru Legeko 2. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letra kentzea.

Zioak: Goi karguen definizio erabat zabala da, eta gainera iraingarria da Parlamentuarentzat. Izan ere, legegintzaldi honetan ez da onartu enpresa publikoetako langile eta kontseilarien

agerraldirik ez zutelako ardura politikorik, eta orain goi kargutzat hartuko dira atzeraeraginezko ondorio ekonomikoekin.

3. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan, 19/1996 Foru Legeko 2. artikuluko 1. idatz-zatiko e) letra kentzea.

Zioak: zehaztasunik gabeko definizioa da hori ere, eta analogiaz modu zehaztugabea zabal daitekeena.

4. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan, 19/1996 Foru Legeko 2. artikuluko 1. idatz-zatiko f) letra kentzea.

Zioak: Ez da zehatza.

5. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan, 19/1996 Foru Legeko 2. artikuluko 1. idatz-zatiko g) letra kentzea.

Zioak: Ez du justifikaziorik.

6. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan, 19/1996 Foru Legeko 2. artikuluko 1. idatz-zatiko h) letra kentzea.

Zioak: Letra horrek nahierara jokatzeko ematen duen aukera irragarritik haratago doa. Nori ordaindu nahi zaizkio emaniko zerbitzuak?

7. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan, 19/1996 Foru Legeko 2. artikuluko 2. idatz-zatia kentzea.

Zioak: UPN-CDNren gobernua ez da gai izan sozietate publiko eta fundazio publikoen definizio zehatzik emateko, eta, horregatik, 15/2004 Legeak

ondareari buruzko legera bidaltzen zuen, eta orain hemen beste horrenbeste egin da; beraz, ez du ezertarako balio.

8. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan, 19/1996 Foru Legeko 4. artikuluko d) letra kentzea.

Zioak: Lege proiektuan, "erakunde autonomoen" orde, "erakunde publiko" eta "fundazio publikoak" jarri da. Zehaztasun horrek ez dirudi justifikatua, bereziki d) letran; izan ere, "erakunde autonomoak," nolabait ere, sozietate publikoekin parekatu gabe geldituko lirateke.

9. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua kentzeko zuzenketa, 19/1996 Foru Legeko 7. artikulua aldatzen duena.

Zioak: Jarduera eta Interesen Erregistroa dagoeneko sortuta dago, eta berriro egiteak ez du zentzurik. Jatorrizko testuarekin duen alde bakarra da gaztelaniako testuan "de" preposizioa agertzen dela.

Gizartearentzat ez da onargarria goi karguen Ondasunen eta Ondare Eskubideen Erregistroa erreserbatua izatea. Noski, nahierara eta batere kontrolik gabe izendatutako goi karguen saldoak, lege hau aldatuta, parlamentu-kontrolatik erabat babestuta geldituko dira. Gertatu izan da sozietate publikoetako kontseilariak Parlamentura azalpenak ematera ez etortzea ez direlako politikarizat jo, eta, aldiz, goi karguak izatea, bai dagokiena atzeraeraginez kobratzeko, bai bermatuta izateko beren ondare-ondasunen eskualdaketa eta finantza-balio eta -aktiboen kontrol eta kudeaketa erresebatuak izan direla.

10. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan, 19/1996 Foru Legeko 3. artikuluko 9. idatz-zatia kentzea.

Zioak: Ez gatozelako bat erregistro hori erresebatua izatearekin, aurreko zuzenketa esan bezala.

Bigarrenik, Nafarroako Parlamentuari dagokionez, Erregelamenduak ez du ezer zehatzik ezartzen goi karguen Ondasunen eta Ondare Eskubideen Erregistroari buruz, eta, gainera, orain tramitatzen ari den aldaketan ere ez da gai horri buruzko inongo aipamenik sartu.

11. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 1.4 artikuluan, 19/1996 Foru Legeko 9. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

“1. Jardueren Erregistroko datuak eskuratzeko bidea honakoetan xedatutakoari lotuko zaio: Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikulua, foru lege hau eta aipatutako arauak garatzen dituzten arauak”

Zioak: Testua hobetu eta erraztea. Jardueren Erregistroa publikoa dela esanda dago 7.2 artikuluan, eta, beraz, hemen jartzea errepikatzea da.

12. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 1.4 artikuluan, 19/1996 Foru Legeko 9. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

“3. Ondasunen eta Ondare Eskubideen Erregistroko datuak eskuratzeko eskubidea, interesduz gain, honako hauek izanen dute:”

Zioak: Testua hobetu eta erraztea. Ondasunen eta Ondare Eskubideen Erregistroa publikoa dela esanda dago 7.2 artikuluan, eta, beraz, hemen jartzea errepikatzea da.

13. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 2. artikuluan, 19/1996 Foru Legeko 5. artikuluko 3. bis idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: ez da egokia 5. idatz-zatian jasotako gai hori foru lege honetan arautzea. Ez da goi karguen bateraezintasunari buruzko zerbait, baizik eta funtzionario publikoen karrera profesionalarekin zerikusia duen zerbait.

Egia da Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioak gainerako funtzionarioekin alderatuz gero, Estatuko oinarritzko legedia aplikatzen baitzaie, badela nolabait ere bidezkoa ez den aldea. Estatuko legedikoak diren funtzionarioak goi kargu batean egon eta gero, eta beste edozein lanpostutan arituta ere berdin, gradu pertsonala finkatzen dute, eta lanbide-karrera osorako ziurtatuta dute kasuan kasuko destino-osagarria. Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioek ez dute aukera hori, ez baitago gradu pertsonalen antzeko sistemarik; izan ere, foru araudiko graduak ez dira parekagarriak, antzintasunagatik ordainsari bat besterik ez baitira.

Gai hori, gure ustez, funtzionario publikoen lanbide-karreraren arauketa berri baten negoziaketa eta eztabaida baten baitan konpondu beharko litzateke; betiere, langile publikoen ordezkarien parte-hartzearekin, eta ez korrika eta presaka beste gai batzuek arautzeko den lege batean. Gaia zabalagoa da. Proiektuan proposatutako arauketak funtzionario gutxi batzuei eginen lieke mesede –berrogeita hamarren bati, oroitidazkian ageri denez–, baina beste askok bidegabeki jarraitu beharko luke, ordea, sustapenerako aukera gutxi ematen duen lanbide-karrera bati buruzko araudia nozitzen. Bestalde, proiektuan ere jaso gabe dago, eta hori ere bidegabekoa izan liteke, lan-kontratudunen egoera eta Foru Komunitateko administrazioarenak ez baizik eta beste administrazio publiko batzuetakoak diren beste funtzionario batzuen egoera.

14. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19/1996 Foru Legeko 3. bis artikuluko 5. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Osagarri horrek ez du justifikazio ekonomikorik ezta politikorik ere.

15. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 2 artikuluan, 19/1996 Foru Legeko 3. bis artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

“Kargua utzi eta hurrengo bi urteetan, goi karguek ez dute jarduera pribatuetan aritzerik izanen baldin eta jarduera horiek zerikusia baldin badute kargua betetzen ari zirela ebatzitako espedienteekin eta ebazpen horietan zuzenean parte hartu bazuten; era berean, ezin izanen dute ez pertsonalki ez % 10eko partaidetza edo handiagoa duten enpresa edo sozietateen bidez edo horiek azpikontratatu bidez laguntza teknikoko kontraturik izenpetu administrazio publikoekin, haien erakundeekin, sozietateekin eta fundazio publikoekin, ez eta zerbitzukurik edo antzekorik ere.”

Zioak: Testua hobetu eta erraztea. Badira goi karguak ebatziz ez baina beste modu batera parte hartzen dutenak espedienteen tramitazioan (adibidez, kide anitzeko organoetan bozkatuz, edo txostenak, proposamenak edo irizpenak emanez), eta badira beste batzuk, aldiz, ebazteko ahalmena izanda, beste modu batera parte hartu dutenak. Proiektuko testua murriztegia da, ebazteko egintza baino ez baitu aipatzen. Bestalde, espresuki jaso behar da goi kargu ohiek debekatuta izanen dutela jarduera pribatuetan parte hartzea partaidetza duten sozietateen bidez. Eta, azkenik, zehaztu behar da bateraezintasuna ez dela soilik administrazio publikoekikoa, baizik eta baita haren menpeko entitate eta sozietateekikoa.

16. ZUZENKETA**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 2 artikuluan, 19/1996 Foru Legeko 3. bis artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“Kargua utzi edo dimititu eta hurrengo bi urteetan, goi karguek ez dute jarduera pribatuetan aritzerik izanen, baldin eta jarduera horiek zerikusia badute kargua betetzen ari zirela haiek ebatzitako, txosten teknikoak egindako edota edozein harreman izandako espedienteekin, enpresekin edo gaiekin; era berean...”

Zioak: Goi karguen kontzeptua zabaltzen bada, kargu horietako askok ez dute ezer “ebatziko”, baizik eta kontseiluetan parte hartuko dute, txostenak

eginen dituzte edo bestelako harremanak izanen dituzte.

17. ZUZENKETA**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 2 artikuluan, 19/1996 Foru Legeko 3. bis artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“Idatz-zati honetan araututako ordainsariak jasotzea bateraezina izanen da edozein lanetan jardunean egotearekin edota edozein pentsio nahiz sorospen jasotzearekin, langabeziakoa izan edo beste edozergatikoa.”

Zioak: Prestazio osagarriak jaso behar dira, betiere, betetako karguaren ondorioz beste baliabide batzuk gabe dagoen denboran konpentsazio bat jasotzeko, ez beste ezertarako.

18. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Beste artikulua bat, 3.a, gehitzeko zuzenketa.

“3. artikulua. Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean beste xedapen gehigarri bat sartzea. Hona testua:

Hirugarren xedapen gehigarria.

Foru lege honetako 3. bis artikulua aplikatzeari dagokionez, goi kargutzat hartuko dira Nafarroako Parlamentuko lehendakaria, Comptos Ganberako lehendakaria eta arartekoak.”

19. ZUZENKETA**ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Beste artikulua bat, 3.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. artikulua. Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 5. artikulua aldatzekoa

5. artikulua. Sari ekonomiko bateragarriak kargu publiko gisa.

1. Kargu publiko gisa goi karguan aritzearekin bateragarri diren jarduerak galarazi gabe, ez du

karguaren lansariaz aparte beste sari ekonomikorik jasoko, honako hauek salbu:

a) Egin behar dituen bidaia, egonaldi eta leku-aldatzeen gastuen kalte-ordaina, indarra duen araudiari jarraituz.

b) Zein administrazio publikotatik datorren haren legeriak onartzen dizkion ordainsari bateragarriak, goi karguak eszedentzia berezian edo zerbitzu berezietan diren funtzionarioak direnean.

2. Edozein kontzepturen bidez jaso behar ez diren zenbatekoak sortuz gero, aurreko zenbakian adierazitakoari jarraituz, dagokien kontuan sartuko ditu zuzenean ordaintzen dituen erakundeak, eta hori ezinezkoa bada, hartzaileak berak, jaso eta hamabost eguneko epean.”

Zioak: Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazio goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legeko zioen azalpenean jasotzen denez, sektore publikoaren funtzionamendu zorrotz eta objektiboa bermatu beharra dago.

Praktikan, lege horren aplikazioak erakutsi du goi kargu eta gobernu kide gehienak ordainsariak jasotzen ari direla administrazio kontseilueta joateagatik; horrek ez dirudi bateragarria denik independentzia instituzionalari eustearekin; are gehiago, kontuan izanda sozietate horietako batzuk ez dutela foru erakundeen gehiengo partaidetza.

Bestalde, zenbait gertakariaren ondorioz, irudipena dugu administrazio kontseilu batzuetan egiten diren izendapenak ez direla egiten pertsona horien gaitasunengatik edo administrazioak interesa duelako beren ezagupenetan eta lanean, baizik eta izendapen horiek aipatutako goi karguen dirusarrerak handitzeko bidea direla.

Gure ustez, Nafarroako Gobernu kideek eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazio goi karguek ordainsari bakarria jaso behar dute, karguari dagozkion eginkizun guztien ordain izanen

dena; kargua dela-eta administrazio kontseilu bateko partaide izan eta hara joateagatik sariak jasotzea ekidin egin behar da. Dirusarrerak horiek zuzenean pasa beharko lukete diru publikoen kutxara. Horrela, kudeaketa publikoaren ondoriozko dirusarrerak eta gastuak gardenagoak izatea lortuko da.

Azkenik, gai honetan gure inguruko administrazio gehienek duten araudiarekin parekatuko ginateke.

20. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapenetan iragankor bakarria aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Bakarria. Sozietate publikoa zer den.

Nafarroako Ondareari buruzko foru legeak sozietate publikoen kontzeptua argitzen ez duen bitartean, foru lege honen ondorioetarako, halakotzat hartuko dira honako baldintza guztiak batera betetzen dituzten merkataritza sozietateak:

– Beren jardueraren bidez, neurri batean bederen, interes publikoko helburuak betetzea, industri edo merkataritza izaerarik ez dutenak.

– Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, zuzenean edo zeharka, haien jardueraren erdia baino gehiago finantzatzea edo haien jardueren gain eragin nagusia izatea, kudeaketa kontrolatzeko mekanismoen bitartez edo administrazio, zuzendaritza nahiz zaintza organoetako kideen erdiak baino gehiago izendatzea ahalbidetzen duten mekanismoen bitartez.”

Zioak: Aldi baterako bada ere, sozietate publikoaren definizioa Europako zuzenbidera egokitzeta, bateraezintasunei buruzko ponentzian adostu zen moduan.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko ararteko aukeratzea.

HAUTAGAIK ALDARRIKATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 5ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Demokraten Elkargunea parlamentu-taldeen idazkia ararteko izateko hautagai bat aurkeztuz, eta harekin batera doazen agiriak.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 3. artikuluari eta arartekoa hautatzeko Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2007ko otsailaren 12an

onetsi zituen araei jarraituz, ondoko ERABAKIA hartu dugu:

1. Ondoko pertsona aldarrikatzea Nafarroako Foru Komunitateko ararteko izateko hautagai gisa:

– Francisco Javier Enériz Olaechea, Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Demokraten Elkargunea parlamentu-taldeek aurkeztua.

2. Erabaki hau parlamentu-taldeetako eledunei igortzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2007ko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Legebiltzarreko parlamentu-talde guztiek aurkeztu eta 2007ko otsailaren 23ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 106.1 eta 145.5 artikuluetan eta azken xedapenetan lehenbizikoan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena Erregelamendu Batzordean tramitatzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, **2007ko martxoaren 9ko goizeko hamarretan bukatuko dena.** Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu beharko dira.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko erregelamendua.

Nafarroako Parlamentuko eta Langileen Batzordeko ordezkariak 2004tik 2007ra bitarteko akordioa sinatu zuten. Haren 5. artikuluko b) letran hauxe esaten da: "b) Lanpostuak merezimendu lehiaketaren bidez betetzeko erregelamendu-garapena sustatuko da, eta, bertan, Nafarroako Parlamentura etorri nahi duten funtzionarioentzat, antzinatez eta prestakuntzaz gain, ezartzen diren gaitasun probak gainditzeko aukera ere jasoko da." Aurreko guztia eta legelari nagusiak eginiko txostena ikusirik, eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 34. artikulua eta lehen xedapen gehigarriaren arabera Langileen Batzor-

deari eman beharreko entzunaldia eman ondoren, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko erregelamendua onestea.

2. Erabaki hau eta honekin batera doan erregelamendua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2007ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko erregelamendua

1. artikulua. Nori eragiten dion.

Comptos Ganberako eta foru erkidegoko administrazioako funtzionarioek parte hartu ahalko dute Nafarroako Parlamentuak deitzen dituen lekualdatze-lehiaketetan baldin eta lanpostu hutsei dagoki-en maila berekoak badira eta deialdian zehazturiko lanbide-kualifikazioa eta gainerako betekizunak betetzen badituzte. Horretarako, deialdietan aipatuko da erakunde horietako zer lanposturen titularrak parte hartu ahalko duten deialdi horietan, erregulazio berak edo antzekoak dituztela ikusita.

2. artikulua. Aplikatu beharreko araubidea.

1. Lekualdatze lehiaketetako prozedurak kasuan kasuko deialdiko oinarrien arabera izan dira; eta oinarri horiek bete beharko dute erregelamendu honetan, Nafarroako Parlamentuko langileen estatutuan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedatutakoa.

2. Deialdietako oinarriak lotesleak dira organo dei-egilearentzat, lehiaketetako epaimahai kalifikatzaileentzat eta lehiaketa horietan parte hartzen dutenentzat.

3. artikulua. Deialdiaren publikotasuna.

1. Deialdiak eta prozesuak amaitzen dituzten ebazpenak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

2. Aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen nahitazeko argitaratze horiek ezertan galarazi gabe, egokien suertatzen diren bestelako ezagutarazpen-moduak erabiliz (iragarki-oholak, web orriak eta abar) deialdien eta haietako izapideen berri ematea sustatuko da.

4. artikulua. Deialdiaren oinarrizko edukia.

Lanpostuak betetze aldera, lekualdatze-lehiaketarako deialdietan honako hauek aipatu beharko dira:

a) Lanpostuaren izendapena, maila, kidegoa eta eginkizunen azalpena.

b) Balioetsi beharreko merezimenduak eta zein baremotan oinarrituz esleituko zaizkion puntuak merezimendu bakoitzari.

c) Lehiatzaileek bete behar dituzten parte-hartze baldintzak.

d) Lehiaketako epaimahai kalifikatzailearen osaketa.

e) Eskabideak aurkezteko epea.

f) Errekurtsoak.

5. artikulua. Lehiaketan aintzat hartzekoak diren elementuak.

1. Lehiaketan aintzat hartuko dira administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa, eta bestelako merezimenduak, erregelamendu honen eranskinean jasotako baremoari jarraituz.

2. Arau orokor gisa, lehiaketetan sartuko da, gainera, lanpostuaren eduki eta eginkizunei eta Nafarroako Parlamentuaren gaineko ezagutzari buruzko proba praktikoa baztertzailerik bat. Proba hori ariketa bat edo gehiago egitean datza, eta hartan gehienez ere hogeita puntu lortu ahalko dira. Proba gaitzailerik ahal izateko, gutxienez ere hamar puntu lortu beharko dira.

Lehiaketaren epaimahai kalifikatzaileak egokitzat jotzen badu, proba praktikoa ahoz defendatu ahalko du izangai bakoitzak, eta ekitaldi horretan jorratu ahalko dira, halaber, aurkeztutako merezimenduei eta lehiaketaren xede den lanpostuaren ezaugarrien arabera egokitasunari buruzko kon-tuak.

3. Probak egin ondoren, lanpostu hutsei dago-kien mailako lanpostu desberdinetan diharduten funtzionarioen parte-hartzeari irekitako lekualdatze-lehiaketetan, Nafarroako Administrazio Publiko-aren Institutuko Psikologia Aplikatuaren Zerbitzuak txosten psikotekniko bat egingen du, zeinean azter-tuko baita deialdiaren xede den lanpostuaren izaera eta ezaugarriei izangai bakoitza nola egokitzen zaien. Txosten horretako gehieneko puntuazioa hamabi puntukoa izan da, eta izangai bakoitzari emandako puntuazioa loteslea izan da epaimahai kalifikatzailearentzat.

6. artikulua. Epaimahai kalifikatzailea.

1. Lekualdatze-lehiaketetako epaimahai kalifikatzaileak Parlamentuko Mahaiak deialdia onestean izendatuak izan da, eta honakoek osatuko dituzte: epaimahaiburu batek eta bi epaimahaikidek. Epaimahaikideetako bat Langileen Batzorde-ak hautatuko du.

2. Deialdiak hala ezartzen badu, epaimahaia osatzen duten pertsonen kopurua bosteraigo izan ahalko da.

3. Epaimahaiburuak izan ezik, epaimahaia osatzen duten pertsonak jardun beharko dute deialdi-ko lanpostuetarako eskaturiko maila edo titulazio bereko edo goragoko lanpostuetan.

4. Epaimahai kalifikatzaileek Mahaiari eskatu ahalko diote adituak hauta ditzala aholkulari gisa jardun dezaten, hizpidea bai baina botorik izan gabe.

7. artikulua. Epaimahai kalifikatzaileen funtzio-namendua.

1. Epaimahai kalifikatzaileak izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost eguneko epean eratu beharko dira.

2. Epaimahaia ezin izanen da eratu kideen gehiengoa bildu gabe.

3. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen arazo guztiak.

8. artikulua. Epaimahai kalifikatzaileen erabakien araubidea.

Epaimahai kalifikatzaileen erabakiak lotesleak izanen dira Parlamentuko administrazioarentzat, salbu eta hark haien jardunean irregulartasunak izan direla jotzen duenean; kasu horretan, Parlamentuko Mahaiak egoki diren neurriak hartuko ditu, bai izapide akastunei bai epaimahaia osatzen duten pertsonen jardunari dagokienez.

9. artikulua. Eskabideak eta epeak.

1. Deialdietan parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta horretarako eskainiko diren eredu normalizatuen arabera izanen dira.

2. Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izanen da, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

3. Izangaiek eskabidearekin batera aurkeztu beharko dituzte lehiaketan parte hartu ahal izateko betekizun edo baldintzak betetzen dituztela frogatzen duten agiriak eta aintzat hartzekoak izan daitezkeen merezimenduen frogagiriak.

10. artikulua. Behin-behineko eta behin betiko zerrendak.

1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Zerrendari erantsiriko ohar batean adieraziko da ezen, zerrenda argitaratu ondoko bost egun naturaleko epean, izangai baztertuek egokitzen dituzten erreklamazioak aurkeztu eta, akatsik egin badute, horiek zuzendu ahalko dituztela. Eskabiderik aurkeztu ez bada, Parlamentuko Mahaiak lehiaketa hutsik gelditu dela adierazten

duen ebazpena emanen du eta ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

2. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

3. Bazterturiko izangairik ez badago, zuzenean onetsiko da onartuen behin betiko zerrenda, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko da.

11. artikulua. Berdinketak ebaztea.

Lehiakideen puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, administrazio publikoei zerbitzuak ematen antzinatean handiena dutenen aldeko erabakia hartuko da. Hori eginagatik ere, berdinketak hautsi gabe irauten badu, adinez zaharrena den lehiakidearen aldeko erabakia hartuko da.

12. artikulua. Jabetza hartzea.

1. Epaimahaiak izangai guztien kalifikazioa emanen du eta izangaiei zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, igorriko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari. Horrek zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak puntuaziorik handiena lortu duten izangaiei esleituak dizkie lanpostuak, eta haien izendapenak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen aginduko du.

3. Izendatuak diren izangaiek lanpostuen jabetza hartu beharko dute haien izendapenari buruzko erabakia haiei jakinarazi ondoko hamar egun naturaleko epearen barruan.

4. Aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan izan ezik, ulertuko da aipatu epean jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela eta, hala izanik, zerrendan hurrengo den izangaiarekin beteko da lanpostua.

13. artikulua. Aurkeztutako agiriak.

1. Izangaiek zilegi izanen dute aurkezturiko agiriak erretiratzea, horretarako berariazko eskaera egin ondoren. Eskaera hiru hilabeteko epean aurkeztu ahalko da, beste hiru hilabete igaro direnean izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

2. Aurreko atalean ezarritako epea bukatu orduko ez baldin bada eskatu agiriak erretiratzea, uler-

tuko da izangaiak uko egin diola agiriak berreskuratzeari, eta horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsituko dira.

3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, aurkezturiko agiriak gordeta edukiko dira, haiek ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak eramatean ahalgo dira erreklamazioaren edo errekurtsoren izapidetzeak horretarako aukera ematen duenean.

Azken xedapenetan lehena. Indarra hartzea.

Erregelamendu honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Azken xedapenetan bigarrena. Arau osagarriak.

Erregelamendu honetan araututa ez dagoen orotarako aplikatuko da Nafarroako administrazio publikoetan lanpostuak betetzeari buruzko Erregelamendua, azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretu bidez onetsia.

ERANSKINA

**Lehiaketetako merezimenduak
balioesteko baremoa**

Lekualdatze lehiaketetarako deialdietan honako hauek balioetsiko dira:

1) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak:

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuen balorazioa deialdia argitaratzen den egunean izangaiak onarturik duen antzinatasunaren arabera egingen da, puntu bat urte bakoitzeko. Urtekopurua osoa ez bada, proportzionalki dagokion puntuazioa esleituko da. Kontzeptu honetan gehienez ere 25 puntu eskuratu ahalgo dira.

Lanaldi partzialean emandako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

Deialdiaren argitaratze-egunaren ondoren emandako zerbitzuak ez dira balioetsiko.

Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon den aldietako zerbitzuak, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu den aldietakoak, egoera horietan sartzeko unean zuen lanpostuan emandako zerbitzu gisa hartuko dira aintzat.

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa.

Kontzeptu honetan aintzat hartuko dira, soilik, deialdiko lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten merezimenduak. Kontzeptu honetan gehienez ere 15 puntu eskuratu ahalgo dira.

a) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolaturiko prestakuntza ekintzetan parte hartu izana: 0,10 puntu, kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 irakastordu), gehienez ere 7 puntu eskuratu arte.

– Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak bete gabe ere, administrazioak agindurik edo hark oniritzirik eginak diren prestakuntza ekintzetan parte hartzea puntuazio berarekin balioetsiko da. Horien artean espresuki sartuko dira sindikatu-ek administrazio publikoetako etengabeko prestakuntzarako itunen barruan antolatuak direnak.

– Balioetsi beharreko ikastaroen ikastordu-zatiak hainbanatu egingen dira.

– Ikastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriak kreditu batekoak izanen balira bezala balioetsiko dira.

– Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriak 12 kreditukoak balira bezala balioetsiko dira.

– Atal honetan ez dira balioetsiko ikasketa titulu bat, unibertsitatekoa nahiz unibertsitatez kanpokoak, lortzeko ikasketak.

b) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztu izana, beka jasotako edo sarituriko zientzia edo ikerketa lanak egin izana, eta aldizkari espezializatueta lanak argitaratu izana, bai eta argitaratutako itzulpenak ere: gehienez ere lau puntu, epaimahai kalifikatzaileak balioetsi beharrekoak, lana edo jarduera bakarka edo taldean eginga den eta biltzarrak edo argitalpenak herri, eskualde, nazio edo nazioarteko maila duen kontuan hartuz.

c) Sektore publikoan prestakuntza ekintzak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartzea: gehienez ere, lau puntu. Epaimahai kalifikatzaileak balioetsiko du, haien iraupenaren arabera.

3) Gehienez ere bost puntu, epaimahaiak balioetsi beharreko bestelako merezimenduengatik, hala nola, kasua bada, deialdian eskaturiko titulazio eta espezialitate akademikoaz bestelakoak izatea, edo, kasua bada, deialdian eskaturiko titulazioaren gainetik dagoen doktoretza edo lizentziatura mailako titulazioa izatea, eta euskara eta beste hizkuntzak jakitea.